



## EUSKADIKO EKONOMIAKO II. OLIMPIADA 2011ko APIRILaren 15a

### **AZTERKETARI BURUZKO INFORMAZIOA**

- Azterketak bigarren mailako batxiergoko “Ekonomia eta Enpresen Antolaketa”ri dagozkion bost galdera ditu. Hala ere, ikasleak gehienez hauetako bi galdera ordezkatzeko aukera izango du batxiergoko lehen mailako “Ekonomia” irakasgaiko 2 galderagatik
- Galdera bakoitzak 2 puntutako balioa du. Galdekizunaren ulermen gaitasuna eta erantzunetan arrazoiketa baloratuko da bereziki.
- Azterketaren iraupena ordu 2 eta 30 minututakoa da.

### **EKONOMIA ETA ENPRESEN ANTOLAKETA**

#### **1. GALDERA**

1).- Pila alkalinoak fabrikatzen dituen Duracell marka ezagunak, Gabonetako kanpainarekin bat etorrira, gailu mugikorretarako kargagailu bat merkaturatu zuen: **myGrid**. 2010eko urrian kaleratu zuten produktu berria, baina Estatu Batuetan urtebete lehenago hasi ziren hura merkaturatzen.

Argindarrarekin konektatzen den 15x20 cm-ko plaka bat da, eta, energia eroankorren bidez, lau gailu ere karga ditzake aldi berean, gailuak plakaren gainean jarrita (argazkian ikusten den moduan). Edonola ere, **myGrid** plakaren argindarra kargatu beharreko gailura igaro dadin, klip bat (*Power Clip*) edo kargarako zorro bat (*Power Sleeve*) jarri behar zaio telefono mugikorrari, marka eta modelo bakoitzari dagokiona.

Kargagailuak segurtasun-babes bat dauka, transformadorearen gainkarga eragozteko, baita mugikor bakoitzaren karga betetzeko mekanismo automatiko bat ere, eta babes berezi bat, likidoen isurietatik babesten duena. Plakaren gainean ez dagokion elementuren bat jarriz gero, plaka itzali egiten da, piztuta badago, eta ez da pizten, itzalita badago; hortaz, hura ukituta ere ez dago inongo arriskurik. Bestalde, kargatzeko inongo gailurik ez badauka, **myGrid** ‘lokartu’ egiten da; hau da, karga-eremua eta adierazgailuaren argia itzali egiten dira.


Bestalde, orotariko mugikorrak kargatzeko erabil daiteke (Nokia, LG, Samsung, Apple, Motorola eta Sony Ericsson), baita iPhone, Blackeberry, kontsola eramangarriak (Nintendo DS eta DS Lite) eta bideokontsolak (Wii, PlayStation eta Xbox) ere.

Produktuak urtebeteko bermea dauka, eta 39,99 €-koprezioa du merkatuan.

**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka:** |\_|\_|\_|\_|



Kutxan, osagai hauek ere badakartza: kargatzeko plaka, lau zorro, konektoredunak (iPhone, iPod Touch, BlackBerry Curve eta BlackBerry Pearl gailuetarako) eta plaka argindarrera konektatzeko entxufea (ikus behean, ezkerrean). Hori guztia, esan bezala, irudian agertzen den kutxan bilduta (behean, eskuinean).



Osagarri gehiago behar izanez gero, 19,99 €-ko prezioa du zorro edo larako gehigarri bakoitzak.

Produktua merkaturatzeko, kontuan hartu zuten ez dagoela horren antzeko produktuen arteko lehia handirik –edo batere ez– eta Gabonak garai egokia direla salmentetarako. Sustapen-bideoak egin dituzte, eroso eta erabilerraza dela erakusteko.

Informazio hori guztia kontuan hartuta, **HAUXE ESKATZEN DIZUGU:**

**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka:** |\_|\_|\_|\_|



**A).- Eman dezagun, gaur, estatuan merkaturatu zutenetik lau hilabetera, produktuak sekulako arrakasta duela salmentetan, eta sona handia duela telefonoen eta elektronikako produktuen merkatuan. Azaldu zein izan daitekeen produktu honentzako prezioen estrategia egokia, hiru urteko aldirako (2010eko urria- 2014ko urtarrila).**

**B).- Orain, eman dezagun egoera kontrakoa dela; alegia, merkaturatu zutenetik lau hilabetera, salmentak oso urriak direla. Adituen webguneetan eta blogetan eta saltoki elektronikoen esteketan, gainera, era honako iruzkinak agertzen dira:**



**Lalinko**

Egia esateko, ez diot batere baliagarritasunik ikusten. Hainbeste kable ez edukitzeko lagungarria dela esaten du, baina gero zorroak behar dituzu. Banengoen, ba, ni... eta publizitatean ez dio ezertxo ere horri buruz. Engainuzko publizitatea, nire ustez.



**Jacum**

Duracellen webgunean argi eta garbi esaten du: 77€, 4 egokigailurekin. <http://www.duracelldirect.es/pno/81229769-eu.html> El Corte Inglésen, 39,99€, osagairik gabe. <http://www.elcorteingles.es/tienda/electronica/browse/productDetailCultural.jsp?productId=A1683305&categoryId=999.068&isProduct=true&trail=9004%3A999.068&trailSize=1&navAction=jump&navCount=0&brandId=Nik> uste dut zehatz-mehatz galdetu behar dela zer modelo erostera goazen, ezustekorik ez hartzeko. Ohiko kargagailuak baino garestiagoa da, halere.



**occidan**

IDAPT izeneko merkeagoa da, erabilerrazagoa (ez du zorrerik behar, eta zorroak garestiak dira), estetikaz politagoa eta, gainera, BERTAN egina... begiratu webgunean. Sekulakoa.

Eta hori gutxi balitz bezala, beste lehiakide batzuek, Duracellen produktuari aurre egitearren, sendotu egin dituzte komunikazio-ekintzak eta hobetu egin dituzte produktuak era prezioak; horri esker, nabarmentasun handia hartu dute merkatuan, myGrid gailuaren kaltetan. Bada lehiakide katalan bat, IDAPT, produktu merkeagoa, sendoagoa eta unibertsalagoa (*joystick* eta bateriarekin dabilzan beste gailu batzuekin ere erabil daiteke, eta ez da behar ez larakorik ez zorrerik) eskaintzen duena. Egoera ikusirik, zer gomendio egingo zenioke Duracelli, datozen hilabeteetan *myGrid* produktuaren prezioari eta, oro har, landu beharreko marketing mix estrategiari buruz?

**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka: |\_|\_|\_|\_|\_|**

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka: |\_|\_|\_|\_|**



## 2 GALDERA

Enpresa bat sortu nahi duen pertsona bat zara. Zure enpresaren era juridikoa erabaki behar duzu. Zein parametro izango zenituzke kontutan zure jarduera garatzeko nahi duzun era juridikoa eratzeko? Zein dira sozietate mota ezberdinen abantailak?

**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka: |\_|\_|\_|\_|**



### 3 GALDERA

Irakurri AEBko emakume bati gertatutako kasu hau:

Emakume bat lanetik bota dute, Facebooken bere nagusiaz gaizki-esaka jardun izanagatik.



[Testuaren itzulpena]

Emakumea: *Ene! Gorroto dut nire lana, nire nagusia perbertitu ergel nazkagarri bat da, eta lerdokeriak egiteko agintzen dit beti, ni amorratzeko. ERGEL HALAKOA!*

Nagusia: *Kaixo, ziur naiz guztiz ahaztuta daukazula zure zerrendan gehitu ninduzula. Hasteko, ez izan hain harroputza. Bigarrenik, 5 hilabete bulegoan, eta oraindik ez zara ohartu homosexuala naizela? Tira, bulegoan ez naiz ibiltzen erreginen modura, baina ez da ezkutuan gorde dudak zerbait ere.*

*Hirugarrenik, lerdokeriak deritzezun horiek lana dira, eta, badakizu, horiek egiteko ordaintzen dizut, hain zuzen ere. Hala ere, benetan jaioa zara eginkizunik sinpleena guztiz nahasten, eta horregatik zaude, behar bada, zauden moduan. Eta, amaitzeko, honako hau ere ahaztuta daukazu, itxuraz: 6 hilabeteko probalditik 2 aste gelditzen zaizkizu oraindik. Dena den, ez kezkatu bihar etortzerik ez baduzu. Kaleratze-gutuna iragarki-oholean utziko dizut, eta zatoz nahi duzunean zure gauzen bila. Eta bai, benetan ari naiz.*

Kasu gehiago daude era horretakoak, Facebooken erruz lanean arazo latzak izan dituztenak:

**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka:** |\_|\_|\_|\_|



1. Suitzar emakume bat Facebooken nabigatzen harrapatu zuten, "ordenagailuaren gehiegizko eraginaren" ondorioz bajan zegoela.
2. *National Football League*ko (amerikar futboleko liga) animatzaile bat kalera bota dute, Facebookeko bere orrian argazki lizunak zintzilikatu izanagatik.
3. Barrutiko epaile bati zigorra ezarri diote, epaiketa batean emango luketen epaiari buruzko inkesta egin izanagatik bere kontaktuen artean.
4. Virgin Atlantic aire konpainiako 13 langile kaleratu dituzte, Facebooken konpainia horri kritikak egiten saiatu izanagatik.
5. Georgiako irakasle bat kaleratu dute, bere lanari buruzko iruzkin desagokiak egin eta argazkiak zintzilikatu izanagatik.
6. Andrew Kurtz, Pittsburgheko piraten maskota, kaleratu egin dute, taldeari buruz egindako adierazpenak direla-eta.

**A).- Besteri buruz duten iritzia edo egiten dituzten gauzak argitara emateak pertsona horien inteligentziari buruz zer adierazten duen epaitu gabe, azaldu ezazu enplegatu horiek, oro har, horiek hutsik egin duten beren enpresekiko edo lanpostuekiko dituzten betebeharreran, eta zergatik.**

**B).- Lehenengo adibideko emakumeari dagokionez, adierazi Espainiako lan-legediaren arabera emakume hori kalera dezaketen, eta, hala bada, zer motatako kaleratzea ezar dakioken.**



#### 4 GALDERA

INVISA Sozietatearen gerenteak 3 urtetako iraupena duen inbertsio proiektu bat aurrera eramatea komenigarria ote den baloratu nahi du. Proiektuak 50.000 eurotako hasierako ordainketa eskatzen du. Proiektu horretatik espero diren kutxa-fluxuak 15.000, 20.000 eta 25.000 eurotakoak dira, lehen, bigarren eta hirugarren urtean hurrenez hurren.

- a) Proiektu honen Eguneratutako Balio Garbia (EBG) kalkula ezazu aplikatzen den deskontu edo eguneratze tasa %5 bada, eta tasa honetan inbertsioa burutzea komenigarria den ala ez azal ezazu.
- b) Inbertsio proiektu honen Barne-Errendimenduaren Tasa (BET) kalkula ezazu, probaketa-eredua (tanteoa) erabiliz. Eredu honen arabera zein balizkoetan izango litzateke komenigarria inbertsioa burutzea? Grafikoki errepresenta ezazu.



eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka: |\_|\_|\_|\_|**



## 5 GALDERA

### "ABACUS S.A."

#### BALANTZEA (Mila Euro; 20XX Ekitaldi-itxierako Datuak)

AKTIBOA			ONDARE GARBIA eta PASIBOA		
	2010	2009		2010	2009
<b>AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>8.343.715.-</b>	<b>8.978.330.-</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>-9.569.387.-</b>	<b>-8.326.608.-</b>
Ibilgetu Ukiezina	476.856.-	396.789.-	<i>FONDO PROPIOAK</i>	<i>-9.569.387.-</i>	<i>-8.326.608.-</i>
Ibilgetu Materiala	7.547.915.-	8.268.314.-	Kapitala	¿?.-	¿?.-
Epe Luz. Finantza-inbertsioak	318.944.-	313.227.-	Erreserbak	1.736.009.-	1.736.009.-
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>7.289.598.-</b>	<b>8.620.466.-</b>	Aurreko Ekitaldiet. Emaizta Negatiboak	-10.101.872.-	-5.967.388.-
Izakinak	5.249.153.-	6.331.681.-	Ekitaldiko Emaizta	¿?.-	¿?.-
Bezeroak	347.048.-	559.079.-	<b>PASIBO EZ-KORRONTEA</b>	<b>4.929.246.-</b>	<b>9.181.022.-</b>
Bestelako Zordunak	1.652.836.-	1.672.902.-	Epe Luzeko Zorrak	4.929.246.-	9.181.022.-
Epe Lab. Finantza-inbertsioak	5.000.-	30.519.-	<b>PASIBO KORRONTEA</b>	<b>20.273.454.-</b>	<b>16.744.582.-</b>
Diruzaintza	35.561.-	26.285.-	Epe Laburreko Zorrak	18.921.730.-	12.263.773.-
			Hartzek. Komertzialak (Hornitzaileak)	1.050.208.-	2.338.294.-
			Hainbat Hartzekodun	301.516.-	2.142.515.-
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>15.633.313.-</b>	<b>17.598.796.-</b>	<b>TOTAL PASIVO</b>	<b>15.633.313.-</b>	<b>17.598.796.-</b>

### "ABACUS S.A."

#### GALDU-IRABAZIEN KONTUA (Mila Euro; 20XX Ekitaldi-itxierako Datuak)

	2010	2009
<b>A) ERAGIKETA JARRAITUAK</b>		
1.- Negozio-zifraren zenbateko garbia (Salmentak)	12.547.140.-	10.833.245.-
4.- Hornikuntzak	-9.146.915.-	-7.954.203.-
5.- Ustiapeneko bestelako sarrerak	10.465.-	0.-
6.- Pertsonal-gastuak	-2.566.881.-	-2.777.041.-
7.- Ustiapeneko bestelako gastuak	-3.695.017.-	-3.716.185.-
8.- Ibilgetuaren amortizazioa	-957.675.-	-720.590.-
12.- Bestelako Emaizak	384.302.-	-1.533.-
= USTIAPENENKO EMAITZA	<b>-3.424.581.-</b>	<b>-4.336.307.-</b>
12.- Sarrera finantzarioak	8.-	0.-
13.- Gastu finantzarioak	-974.847.-	-959.834.-
= EMAITZA FINANTZARIOA	<b>-974.839.-</b>	<b>-959.834.-</b>
= ZERGA AURREKO EMAITZA	<b>-4.399.420.-</b>	<b>-5.295.429.-</b>
17.- Mozkinen gaineko zergak	-	-
<b>B) ETENDAKO ERAGIKETA</b>		
= EKITALDIKO EMAITZA	<b>-4.399.420.-</b>	<b>-5.295.429.-</b>

### ESKATZEN DA:

1.- Balantzea osatzea.

2.- Ekitaldi bietarako Maniobra Fondoak kalkulatzeko. Lortutako balioen esanahia, eta aldaketarena, azal ezazu.

3.- Ekitaldi bietarako Epe Laburreko Kaudimena eta Likidezia kalkulatzeko. Esanahia azal ezazu eta aldaketaren zergaitiak justifika itzazu.

4.- Ekitaldi bietarako Berme-ratioa (Kaudimen Osoaren ratioa) kalkulatzeko. Esanahia azal ezazu eta aldaketaren zergaitiak justifika itzazu.

**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka:** |\_|\_|\_|\_|

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka: |\_|\_|\_|\_|**



## **EKONOMIA**

### **1 GALDERA**

#### **Sektore publikoak mantsotu egin du BPGaren igoera**

#### **Etxeko kontsumoan %0,3ko goititzea izan da, eta Administrazioek %0,7 gutxiago gastatu dute**

LUCÍA ABELLÁN 16/02/2011

Politika zorrotzen eraginez, aldatzen ari da Espainiako ekonomiaren kontsumoaren profila. Gastu publikoa zen hazkundearen motor nagusietakoa, eta, gaur egun, aldiz, kopuruak hobetzeko oztopoa da. Kontsumo osoan etena gertatu zen urteko azken hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Baina desagregazioa benetan aipatzekoa da. Izan ere, etxeetan aurrerapena izan zen, %0,3koa, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta –hartan atzerakada nabarmena izan zen–, eta, aldiz, administrazio publikoetan areagotzen ari dira murrizketak: sektore horren gastua %0,7 jaitsi zen, udako hilabeteekin alderatuta, uztaila-iraila bitarteko hiruhileko-arterko tasa bera.

Kontsumo publikoan 2009ko hirugarren hiruhilekoan hasi ziren murrizketak ezartzen, sektore pribatua aurreko urte osoan izandako jaitsierak atzean uzten hasi zen garai berean. Administrazio publikoek 2008koaren antzeko gastuari eutsi izan baliote, Espainia dagoeneko susperraldiaren bidean sartuta legoke, argi eta garbi. Hipotesia, nolahi ere, zalantzazkoa da; izan ere, kontsumo publikoa areagotzeak zor publikoaren murrizketa txikiagotuko luke eta horrek kanpo finantzaketa zailduko luke –edo guztiz deuseztatu–.

Eraikuntza da gainbehera ekonomikoak kalte gehien eragin dion sektorea, eta hor ere sumatzen da kontsumo publikoaren eta pribatuaren arteko txandakatze hori. Sektore horretan hiru urte daramatzate krisian, eta urte amaieran hiruhileko-arterko %3,1eko jaitsiera izan zuen; kopuru hori 2010ekoa baino okerragoa da, baina 2009aren azken zatikoa baino zertxobait hobea. Oraingoan ere, funtsezkoa izan da obren araberako bereizketa.

Etxebizitzaren eraikuntzan, hilabeteak dira jaitsieraren erritmoa mantsotu dela, nahiz eta oraindik %2,4an eusten dion. Aldiz, jaitsierak larriagotu egin dira beste mota batzuetako eraikuntzan, hala nola herri-lanetan, arlo horretan kalte handiak eragin baititu zorrotasuna sustatzeko politikaren ondoriozko inbertsio-murrizketak. Hiruhileko-arterko %3,5erainoko atzerakadak izan dira.

**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka:** |\_|\_|\_|\_|\_|



Kopuru horiek gaur argitaratu ditu INE erakundeak, kontabilitate nazionalaren estatistikaren baitan, eta agerian utzi dute 2010ean %0,1eko urte-arteko uzkurraldia gertatu dela Espainiako ekonomian. INEk berak eta Espainiako Bankuak egindako aurrerapenak berretsi ditu datu horrek, eta hobetu egin du Gobernuaren hasierako iragarpena (%0,3); baina 2010ean BPGan jaitsiera izan duten Europako bost herrialdeetako bat da Espainia.

a) Politika fiskal murriztaile bat zer den azal ezazu

b) Nola eragin dezake gastu publikoan murrizketa batek eskari agregatuan eta jarduera ekonomikoan? Zure argudioak modu argi batean eta grafikoki azal itzazu.

c) Fluktuazio zikliko eta aurrekontu publikoaren terminuetan albistea laburki komenta ezazu. Keynesen eredu defenatzen duen ekonomilari bat bazina zein izango litzateke zure iritzia?



## 2 GALDERA

Marrubien merkatun eskaintza eta eskari kurbak honako hauek dira:

$$\text{Eskaintza: } Q_o = 250P - 500$$

$$\text{Eskaria: } Q_d = 60.000 - 300P$$

Zera eskatzen da:

- Zein merkatu mota den adieraz ezazu, erantzuna arrazoinduz
- Oreka prezio eta oreka kantitatea kalkula itzazu. Grafikoki errepresenta ezazu
- Legez  $P = 80$  moneta unitateko prezio maximoa finkatuko balitz gertatuko litzatekeena azal ezazu
- Eskaria elastikoa al da?

**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka: |\_|\_|\_|\_|**

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka: |\_|\_|\_|\_|**

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



**IDATZI HEMEN AZTERKETAREN Zka: |\_|\_|\_|\_|**